

EUSKAL-FÉSTAK MONDRAGONEN

1896

(Euskal-fésten XV.^{garren} urtea)

Donostiako Euskal-itz-jostaldien Batzarreak, gure euskera eder, itzkribu eta musika jatorriztik ditugunak alegiñ guztian gorde eta zabaltzeko bere egiñ-pideari oartuaz, erabaki du, Gipuzkoako Diputazio chit goituaren baimenarekiñ, aurtengo Euskal-féstak Mondragonen egitea, prestaturik ontarako ondoren agertzen diran indar-neurtz eta jostagudak.

AZALDEA

Izkribatzalléen indar-neurtzea

Euskal-izkuntza-jakindeak zabaltzen sayatzen diran izkribatzalleai, lanbide onragarri onetan aurrera ere jarraitzeko limurkaritzat, emango zaizkate ondorengo sari oek:

1.^{ko} EUN PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA edo diploma, euskarazko itz-larri eta Gipuzkoako izkeran lanik onena aurkezten duenari, agerturik gure Fueroen Batzar edo Junta oroigarrien sustrai eta kondaira eta ayetan izaten ziran festena.

2.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, euskarazko itz-larri eta edozeiñ probintziko izkeran egintako lanik onenari, adierazten dirala, garbiro, Mondragongo gloriya kondairarrak eta bertako seme argidortarren doayak.

ALDEERA.—*Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

3.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, edozeiñ gai, neurri eta euskal-izkera motan jarritako itz-neurtu edo berso moldaera ederrenaren egilleari, ogei ta amar berso-taldetik gora iragotzen ez dala.

ALDEERA.—*Berrogei ta amar pezeta eta bitezarra.*

4.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Gipuzkoako euskal-izkeran eta probintzi ontako nekazaritza gaya duela izkribatutako liburuchorik onenari.

5.^{garren} LAROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, Kubako gerran Españiaren osotasuna defenditzen duten soldaduai itz-neurtuetan donkitutako oroitzik onenari.

6.^{garren} DIBUJATZEKO KAJACHO EDO GIS ONTAKO BESTE SARI BATZUEK, ordu laurden batean euskaraz ongiyen irakurri eta izkribatzen duten neška-mutillentzat.

Chistu-soñularien bilkida.

1.^{ko} IRUROGEI PEZETAKO SARI BAT ETA BITEZARRA, danboliñ-banda osorako egoki antolatua aurkezten dan zortzikorik onenari.

2.^{garren} IRUROGEI PEZETAKO SARI BAT, zortziko ori ongiyena jotzen duen danboliñ-banda osoari.

Bersolarien jolasbidea

Egingo da Euskal-erriko bersolarien bilkida eta jostaguda bat, emanik LAROGEI PEZETA, erdira, bi onenai, au da *berrogei pezeta* bakoitzari.

Oarkkerak

1.^{ko} Indar-neurtze oetarako aukeratzen diran lan guziak bialduak izan bear dute korrioaren bidez paper-bilgo ziertotu edo zertifikatuetan, zuzende onekiñ: SR. SECRETARIO DEL CONSISTORIO DE JUEGOS FLO-RALES EUSKAROS.—SAN SEBASTIÁN.

2.^{garren} Lan guziak bialdu bear dira indar-neurtze ontarako, esan dan eran, datorren Garagarrillaren 15-erako.

3.^{garren} Lan bakoitzak ekarriko du barrenen paper-bilgo ichi bat, ipiñirik bertan izkribatzallearen izen eta izengaña edo lonbrea, non bizi dan agertzen duela.

4.^{garren} Moldaera guziak esamiñatuko ditu Euskal-itz-jostaldien Batzarreak eta sarituak izaten diranak moldizkiratuko dira osto bana- ketan, beren egilleai batzuek emanik.

Sarituak izaten diran moldaera guziak ipiñiko dira Batzarrearen urteoroko Oroimengarrian.

5.^{garren} Batzarrearen goarpelariak irakurriko ditu moldaeren erabakida eta egintzari dagokion jolas-aldi bat.

6.^{garren} Irakurriko dira sarituak izaten diran izkribuetatik, ortarako luziegi ez diranak.

7.^{garren} Emango zaizkate sari, bitezar eta osto moldizkiratuak, oek jasotzera aurkezten diran egilleai.

Donostian, 1896-ko Marchoaren 17-an.

Batzarrearen izenean:

ALFREDO LAFFITTE,
Dianagusia.

ANTONIO ARZÁC,
Goarpelaria.

(Diputazio chit goituak baimendua, Apirillaren 21-ean izandu duen billaldian, eskubidea emanaz bear dan guzia prestatzeko Euskal-fésten edertasunik aundierako.)

* * *

FIESTAS EUSKARAS EN MONDRAGÓN

1896

(Año XV de la celebración de estos certámenes)

El Consistorio de Juegos florales euskaros, atento á su misión de procurar por cuantos medios estén á su alcance la conservación de la lengua bascongada y la propagación y el desarrollo de nuestra literatura y música peculiares, ha dispuesto, de acuerdo con la Excma. Diputación provincial, que las fiestas euskaras correspondientes al presente año se celebren en Mondragón, anunciando al efecto los oportunos certámenes en la forma expresada en el siguiente

PROGRAMA

Certamen literario

Como modesta recompensa que sirva de lauro y de estímulo á los escritores que se dedican al cultivo de la literatura bascongada se concederán los premios siguientes: